

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Bileraren datuak:

Datos de la reunión:

Eguna: 2017-03-30

Tokia: Santa Clara Jauregia

Ordua: 17,00-18,15

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu
Gizatiar: Margarita Tarazaga
Emakumeon Ahotsa: Luciana Davies
Roda: Clara Lorenzo Quevedo
EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz
Ciudadanos-Herriarrak: Carlos Escalera Lana
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Paula Amieva Clemente
Talde Popularra: Susana De Cos Yañez
ELA: Elvira Lemona Díaz
Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi
Idazkaria: Idoia Eizmendi Aldasoro

Ez dira etorri:

Eskuz-Esku
Udal Talde Sozialista
Berritzegune

Gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea
- Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, baloratzea
- Emakumeen Etxeari buruzko prozesua
- IV. Berdintasun Plana eta diagnostikoa hedatzea
- 2017ko Kudeaketa Plana
- LGTBI eskubideen aldeko eguna
- Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikasturte amaiera
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aho batez onartu da aurreko batzarreko akta.

Martxoaren 8aren balorazioa: Emakumeen Nazioarteko Eguna

Berdintasun teknikariak udalak antolatu dituen jarduerak aipatu ditu eta egon den parte hartzea azaldu du:

- Kristalezko sabaiari buruzko mahai-ingurua: 60 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten. Haren iritziz, hizlarietako 3 Getxon bizitza oso garrantzitsua izan zen parte hartze handia egoteko.

- *"Futbolariak eta printzesak"* antzezlanean, lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzendua, 4 ikastetxek bakarrik parte hartu zuten, eta beste batek adierazi zuen urte honetan bertan ikastetxe osoak ikusi zuela generoko rolei eta estereotipoei buruzko antzezlan hau; horregatik ez dute oraingoan parte hartu.

- Orrialde-markagailuen "txapelketa", eskualde mailan Berritzegunearekin batera antolatua. Getxoko 4 ikastetxek parte hartu dute. Diseinuetako 4 aukeratu dira eta ikastetxe guztietan argitaratu eta banatu dira. Hasiera batean, ez ziren haur hezkuntzarako argitaratu, baina ikastetxe batek eskatuta eskola guztietako umeentzat tirada berri bat atera da.

Berdintasun zinegotziak esan du orrialde-markagailuekin erakusketa bat egingo zela esan zen arren azkenean ez dela hala egin, oso gutxi baitzeuden.

Berdintasun teknikariak jarduera horiek eta elkarteek antolatutakoak baloratzeko txanda hasi du.

Bilgune Feministak, hasteko eta behin, esan du aurten ez dutela manifestaziorik deitu Algortan. Aitzitik, Bilbora edo Romora joateko dei egin dute. Manifestazio horretaz balorazio oso ona egin dute. Gaineratu du MCV eta Haziarekin batera world-cafe bat egin zutela aurreko urtean hasitako gaiarekin jarraitzeko, hau da, bizia merkatuaren gainetik jarri beharrari buruz. 60 emakumek inguru parte hartu dute.

Bestalde, esan du ezin izan zuela mahai-inguruan egon.

EH Bilduk dio beraiek deialdi guztietan parte hartzera deitu zutela. Romoko manifestazioaz oso balorazio positiboa egin du. Mahai-inguruari dagokionez, asko gustatu zitzaion kristalezko sabaia eremu ezberdinetatik aztertzea. Berezi Marta Macho gustatu zitzaion. Erantsi du EHUKo berdintasun zuzendariaren zatia ezagunagoa egin zitzaioela. Gaineratu du oraingoan ere neska-mutil gazteak egotea faltan bota duela.

World-kafea oso interesgarria iruditu zitzaion, besteak beste emakume ezberdinei elkar ezagutzeko aukera ematen dielako.

GUKek ez zuen mahai-inguruan parte hartu, Kontseiluko ordezkariak gogo handia zuen arren. Uste du Romoko manifestazioa oso ondo egon zela. Neskez gain mutil gazte asko egon ziren. Bidean zehar jende askok bat egin zuen.

Desirei eta beharriari buruzko world-kafea oso interesgarri begitandu zitzaion, gauza berri asko ikasi zituen, eta beste arazo batzuk dauzkaten emakume migratuak ezagutzeko aukera eman zion. Esan du oso pozik eta harro dagoela parte hartzeagatik. Amaitzeko, baloratu du martxoaren 8ko jarduerak oso beharrezkoak direla, baina urte osoan zehar jarraipena eman behar zaiela.

Mujeres con Voz elkarteak esan du world-kafean antolatzaile gisa parte hartu zutela. Beste batzuek gaiak jardun dutenez gero, ez du ezer gaineratuko. Esan du ez zela Kontseiluaren aurreko batzarrera joan eta ez ziela gainerako erakundeei berriazko gonbidapena egin, baina espero du beste urte batzuetan jarduera hau elkarrekin egitea, guztien ekarpenak biziki garrantzitsuak baitira.

Manifestazioari dagokionez, esan du Bilgune Feministarekin adostu zutela beraiek Bilbora joango zirela.

PPren ordezkariarentzat, mahai-ingurua interesgarria izan zen, eta orain arte egin denetik ezberdina dela deritzo. Modu berean, IV. Berdintasun Planaren aurkezpenean parte hartu zuen.

Ciudadanosek adierazi du IV. Planaren aurkezpenean bakarrik parte hartu ahal izan zutela.

Rodaren ordezkariak esan du bera bidaia batean zegoela, baina bere elkarteak Espainiako historian garrantzitsuak izan diren emakumeei buruzko hitzaldia antolatu zuela.

Gizatiar elkarteak Romoko manifestazioan eta world cafean parte hartu zuen. Modu berean, pertsonen salerosketari eta asiloari buruzko hitzaldi bat antolatu zuten CEAREkin.

Esan du beraiek ez zutela informaziorik jaso mahai-inguruari buruz. Gerora jakin zuten data, nahiz eta beraiek egin zuten Marta Macho gonbidatzeko proposamena. Berdintasun teknikariak barkamena eskatu du. Batetik, konturatu gabe, Gizatiarrek CEAREN hitzaldia deitu zuen egun berean jarri zuen IV. Planaren aurkezpena, eta bestetik, jardueren informazioa zenbait hedapen-zerrendatara bidali zuen, baina ez Kontseiluaren zerrendara. Azken arrazoi horrengatik, batzuk ez zuten jakin mahai-ingurua hasteko ordua aurreratu zela.

EAJren ordezkariak esan du harrituta geratu zela mahai-ingurura etorri zen jendetza ikustean. Uste du profil ezberdin eta interesgarriak zeudela.

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du Kontseiluaren aurreko batzarrean erabaki zela kristalezko sabaia aztertzea, hainbeste jarduera deitu beharrean. Ez daki, beraz, mahai-inguruaren arrakasta horrengatik izan zen, hau da, Getxori lotuta dauden pertsonak izateagatik, edo hizlarien profilagatik. Baina badakiguna da aretoa bete zela; uste du hurrengoetarako, martxoaren 8an, Getxoko jendearen profila kontuan izan behar dela ekitaldiak deitzean.

Berdintasun teknikariak esan du ez direla aipatu Bilgune Feministak eta beste talde feminista batzuek euskararen aldeko elkarteekin batera antolatutako jardueretako bi, zehazki, "Izena eta izana ezbaian" gidaliburuaren aurkezpena eta "Euskara eta feminismoa bidaide" hitzaldia.

Emakumeen Etxeari buruzko prozesua

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du goizean bertan batzarra egin dela Etxeari buruz, eta zenbait kontu geratu direla aztertzeke azken txostenari buruz. Beraz, hurrengo kontseiluan informazioa emango da eta behar den publizitatea emango da txosten hori ematen denean.

IV. Berdintasun Plana eta diagnostikoa hedatzea

Berdintasun teknikariak IV. Planaz egin diren hiru aurkezpenen berri eman du:

- gobernu taldeari zuzendua
- udaleko langileei zuzendua. 28 pertsonak (16 gizonak eta 12 emakumek) parte hartu zuten. Beraietatik 5 arloko buruak ziren (gizonezkoak), eta 3 politikariak (2 gizon eta emakume bat). Balorazioak onak izan ziren.
- herritarrei zuzendua. 8 pertsonak parte hartu zuten (6 emakumek eta 2 gizonak), ia guztiak elkarteetako kideak.

2017ko Kudeaketa Plana

Berdintasun teknikariak dokumentazioa banatu du, IV. Planetik eratorritako 2017ko kudeaketa planarekin, eta azaldu du ekintzarik gehienak plan horren iraupeneko lau urteetarako planteatuta daudela. Beste batzuk, ordea, ez daude dokumentu honetan, oraindik ez direlako hasi.

Urte honetarako edo urte honetarako eta beste baterako bakarrik egutegia daukaten ekintzak birpasatu ditu.

Gizatiarrek galdetu du jazarpen-kasuetako protokoloari buruzko 8.4.1 ekintza barne izaerakoa den ala herritarrentzat den. Berdintasun zinegotziak azaldu du barne izaerako ekintza dela.

ELAren ordezkariak jakinarazi du udal erakunde autonomoetan eta, zehazki, berak lan egiten duen udal egoitzan, dagoeneko laneko jazarpenari eta jazarpen psikosozialari buruzko protokoloa daukatela. Hemen sexu jazarpena sartzen da. Gaineratu du puntu hau ez dela oso sakon aztertu, baina ez dutela horren beharrik ikusi, oso kolektibo feminizatua baita.

Bilgune Feministak esan du ondo dagoela lantokietan jazarpen-protokoloak lantzea. Batzuetan ez badira aktibatzen, arrazoia da bide judiziala etsigarria dela, eta ez jazarpenik edo tratatu txarrik ez denik gertatzen. Berdin jazotzen da emakumeen tratatu txarren kasuetan. Jendarte gisa, justizia-administrazioaren eremuan esku hartu edo lan egin beharko genuke.

Ekainaren 28a, LGTBI eskubideen aldeko eguna

Urtero bezala, nazioarteko egun hau dela-eta jardueraren bat antolatzeko proposamenak egin behar dira. Berdintasun teknikariak esan du oraindik ere Chrysallis elkarteak (Adingabeko Transexualen Familien Elkarteak) proposatutako hitzaldia egiteke dagoela. Uste du une honetan oso aproposa litzatekeela gai hau aztertzea.

Beste proposamen batzuk egiteko irekita dago.

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikasturte amaiera

Berdintasun teknikariak aditzera eman du aurrean jardunaldia Bizkaiko beste eskola batzuekin batera antolatuko dela, sarea osatzen duten 4 udalen jardunaldia izan beharrean. Antolaketan Ermuak, Ondarroak, Basaurik, Getxok, Arratiak, Durangok, Abadiñok eta Elorriok parte hartu dute, eta topaketa ekainaren 3an, larunbata, izango da, Durangon. *GUREKIN BELDURRAK JAI. Indarkeria matxistaren aurkako estrategia feministak jaietan* leloarekin jarduera hauek egingo dira:

- mahai-ingurua Miren Guillórekin (jaiei, genero-harremanei eta feminismoiei buruzko argitalpen baten egilea), Las Farrucasekin (Iruñeko talde feminista, jaietan autodefentsa feministaren estrategia proposatzen duena), eta Eragile Moreak kolektiboa (azken Ibilaldiaren inguruan sortu zen, sexu-erasoen aurrean autoantolakuntza gisa).
- kontzertua Guatemalako Rebeca Lane raperarekin.
- bazkari autogestionatua (antolatzailleek janariaren eta edariaren zati bat jarriko dute).

Bilgune Feministak adierazi du jardunaldi komunaz gain interesgarria litzatekeela ikasturte amaierako topaketa bat egitea Getxo mailan, jabekuntza eskola ezagutzera emateko eta dagokion balioa emateko. Uste du ikasleentzat polita litzatekeela berriro biltzeko aukera hori izatea, aurretik elkar ezagutzen ez zuten emakumeek harremanak sortu eta gauza intimoak partekatzen dituztelako ikastaroetan.

Berdintasun teknikariak esan du proposamenarekin ados dagoela. Berak antzeko zerbait zuen buruan, uste baitu emakume batzuek, ikastaro bat otsailean edo martxoan amaitzean, ez daukatela harreman gehiagorik eskolarekin hurrengo ikasturtea hasi arte.

Berdintasun zinegotziak adierazi du orain arte beti erabaki dela ikasturte amaierako jaia sarean egitea. Gogora ekarri du modu berean lehen eskolan aurkezpen bat egiten zela ikasturte hasieran eta hori egiteari utzi zitzaiola, parte hartzea behera

egiten ari zelako. Ordea, berak ere uste du ziurrenik jarduera batek harrera hobea izan dezakeela emakumeak klasean egon ondoren egiten bada, elkar ezagutu baino lehen egin beharrean.

Bilgune Feministak proposatu du espazio publikoan egiten den jarduera bat izan dadila, eta parte hartzen duten emakumeen energia kalera atera dadila.

Berdintasun zinegotzia ez dago ados proposamenarekin. Izan ere, azaldu duenez, Getxoren txanda zen aurtengo topaketa antolatzea, baina berdintasun teknikaria bajaran zegoenez gero norbaitek kanpoan egitea erabaki du. Uste du interpreta litekeela Getxok bere topaketa antolatu nahi duela horri erantzunez.

Berdintasun teknikariak azaldu du egia dela bera ez zegoenean hartu zela erabakia, baina ez dagoela inolako asmorik Getxoko jardunaldia ateratzeko, baizik eta, ikusita azken bi topaketetan parte hartzea oso txikia izan zela, gaia birplanteatzen ari zela. Beste aukera batzuk aztertzen ari ziren, esate baterako, bi urtean behin zerbait egitea. Horregatik, eskola guztiei ikusgarritasuna emateko denen artean zerbait egiteko interesa sortu zenean, balorazio positiboa egin zen; hortik aurrera erabaki zen Durango zela lekuri zentrikoena.

Bilgune Feministak esan du euren proposamena ez dela zertan urte honetarako izan, are gehiago arazoak sortzen baditu.

Berdintasun zinegotziarentzat positiboa da loturak sortu ahal izatea, baina ez dago ados topaketa aurtengatik.

Galde-eskeak

- Gizatiarrek Getxo Lagunkoia proiektuari buruz galdetu du, zeinetan parte hartzera gonbidatu duten. Jakin gura du hirigintza proiektua den edo gauza transbertsala den, eta Kontseilu honen arloarekin zerikusirik duen.

EAJren ordezkariak, Gizarte Zerbitzuen zinegotzia denak, erantzun du OMEak bultzatutako proiektua dela, adineko pertsonekin lagunkoiak diren hiriak sortzeko helburuarekin. Irisgarritasuna gai zentrala den arren, zenbait arlo ukitzen ditu: osasuna, arlo soziala, etxebizitza, enplegua, hirigintza, eta abar. Modu berean, BFAk eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu dute, eta 8 talde fokal egin dira adineko pertsonekin. Hortik talde motor bat egingo da, plana prestatzeko.

Gai honek Kontseiluarekin daukan zerikusiari dagokionez, berdintasun teknikariak erantzun du zerikusia daukala, pertsonekin zerikusia duen neurrian, adibidez, mendekotasuna duten pertsonen zaintzari dagokionez.

- EH Bilduk proposatu du Iratxe Fresnedaren "Irrintziaren oihartzunak" dokumentala, Mirentxu Loiarde zinegileak berreskuratu duena, ekar dadila.

- GUKek proposatu du beste urte baterako Trans ikusgarritasunaren eguna kontuan izan dadila, adierazpen bat edo jarduera bat eginez.